

Ezaren apologia

Antton Izagirre

Gure denbora azkar, agudo, ihesean doan pertzepzioa areagotzen duten garaiak bizi ditugula esaten badut, beste askok esandakoa azpimarratzea besterik ez litzateke. Garai likidoaz hitz egiten dugu. Gaurko egiek bihar hartuko duten formaz ziurtasunik eza dugu. Ustez ziurrak genituen kontzeptuak erabat eraldatu zaizkigula jabetu gara. Guztiari aurkakotasuna aurkitu diogu eta egungo errealitatea adierazteko kontzeptu berriak behar ditugu.

Marc Augek, gain-modernitate garaioan espazioa identifikatzerakoan lekuak eta “ez-lekuak” bereizi zituen. Ulertzen genuen identitate, erlazio eta gune historiko modura definitzen zituela lekuak; hots, gure etxea, txokoak, kaleak, gertuko den-

da... Horri kontrajarriz “ez-lekuak” modura identitate, erlazio edo historiari gabe ko espazioak aipatu zituen: aisia gune handiak, hotelak, komunikabide azkarrak... indibidualismora garamatzatenak.

Baina garbi dago bi kontzeptuek ez dituztela hain muga zehatzak eta ezin ditugula betikotu. Guztia aldakorra den uneak bizi ditugu. Covid-19ak eragindako pandemiak eta aurre egiteko neurriek lekuak “ez-leku” bilakatu ditu askotan. Etxeko espazioak itogarri bihurtu dira askorentzat, harreman lekuak lantoki bihurtu ditugu, familia gune genituenak jasanezinak egin zaizkigu itxialdian. Txokoak, parkeak, elkarguneak ixteko aginduak “ez-leku” bihurtu ditu. Eskolak ez dira erlazio gune, burbuila hertsia dira,

“ez-leku” bihurturik. Espazioa ez ezik, denbora, aisia, ohiturak ere eraldatu dizkigute. Goizaldeko ordu txikietan atsedenen ematen ziguten tabernen ordutegiak ilunabarreko “ez-orduetara” mugatu dituzte. Festen orde, “ez-festak” egiten hasi gara. Danborrada “ez-danborrada” izango da, inauteriak “ez-inauteri” akaso.

Madrilen hautagaien orde, “ez-hautagaiak” aurkezten hasi omen dira. Sare sozialetan, aurkaria erasotzeko izenen orde “ez-izenak” normalizatu dira. Hori gutxi balitz bezala, agintariak “ez-gai” dira pandemiari aurre egiteko.

Jada ez dakigu zer egin: “ez-garai” berriotara gure bizimoduak egokitu, garai hobe zain geratu ala gaurdanik garai berriak eraikitzen hasi. •

Argi naturala nahiago gosalduta eta gero

Miren Azkarate
Badiola

Zurumurrua zabaldu zen: bazirudien 2019a izango zela ordu aldaketa egingo genuen azken urtea. Baina, 2020a iritsi zen eta aurreko astean urteko bigarren ordu aldaketa egin genuen, udazkenekoa edo negukoa. Beti entzun dut energia aurrezteko egin ohi dugula ordu aldaketa, baina, zer nahi duzue esatea, ez dut ulertzen. Zinez, norbaitek erantzuna ongi azaltzen baldin badaki, gustu handiz entzungo nioke. Ez dakit zuei gertatzen zaizuen, baina niri behintzat neguko aldaketa horrek energian eragiten badit, aldaketa hori nire energia xahutze aldera izaten da eta, al-

diz, etxeko gastuen ordainketak (beste energia mota) garestiagoak dira. Animi-koki tristeago nago arratsaldeko 18:00etan gaueko 00:00etan bezalako iluntasuna edukita eta horri gehitu argiaren faktura iristean jasotzen dudana zaplaztekoa, alaitu beharrean gehiago hondoratzen nauena.

Orduan, galdera sinplea da, zeinen energia aurrezten da? Eta batez ere, zeinen poltsikoak betetzen dira gureak husten diren bitartean?

1974. urtean hasi zen hedatzen mundu mailan ordua aldatzeko kontu hori, nahiz eta 1784an jada Benjamin Franklinek de-

fendatu zuen eguzkiaren izpiak hobeto baliatzeko eta aurrezteko ideia hori. Gaur egun, munduko hainbat herrialdek egiten dugu: Europako herrialde gehienek, AEBek, Txilek, Paraguaik, Kubak, Bahama Uharteek, Haitik eta Ozeaniak. Gainontzekoek ez dute egiten.

Berriro diot ez ditudala nondik norakoak ezagutzen eta agian jakiten baditut ideia aldatuko zaidala, baina badakidana da, gaur-gaurkoz, nahiago dudala udako ordutegia, iluntzea arratsalde amaieran ematen delako, nahiz eta ilunpean gosalduta. Ea zurrumurruek zurrumurru izateari uzten dion 2021ean. •